

# txintxarri



## Ongi etorri, Teresa!

Hilaren 28tik ekainaren 2ra ospatuko dituzte Zabaleta auzoko jaiak. Egitarau oparoa prestatu dute / 8

TXINTXARRI

## 'Hemendik 50 urteko herria'

Kukukak eta Semblante Andaluzek elkarlanean sortu duten 'Lasartoria 2074' obra estreinatuko dute / 6-7

Okendotik abiatu eta eraustegira joan dira, oinez, azpiegitura hori geldi dezaten eskatzeko / 2

**Gipuzkoa Bertsoan sailkapen fasetik kanpo geratu da Lierni Rekondo herritarra / 4**

**Euskararen aukerez eta erronkez hausnartu dute Borobilean Elkartearen saioan / 5**

**Ostadar Boleibola ataleko infantil A eta senior taldeak Gipuzkoako txapeldun dira / 10**

**Gipuzkoako Bola eta Toka txapelketako garaileak Michelin kirol gunean erabaki dira / 11**

**Lasarte-Oriako atletak, berriro ere, Gipuzkoako txapelketetako podiumetan / 12**

**37. URTEURRENA**

## Bideo Lagunak

Finantziazioa neurria   Garraio zerbitzua   Erabilikako gailuen jasotzea   Aholkularitza espezializata   Preziok onena

**Etxekotresna elektrikoetan adituak**

**ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA**

Donostia etorbidea 2 - Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34

## Udaberri eta urteurreneko eskaintzak

**Etxekotresna elektrikoetan aukera zabalena prezio onenean!**

Telebistak   Garbigailuak   Hozkailuak   Labeak   Bitrozeramikak

[www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)



Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren deialdiarekin bat egindakoak, erraustegira bidean. TXINTXARRI

## Oinezko protesta, erraustegiaren aurka

Herritarrek bat egin dute Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak berriki deitutako mobilizazioarekin. Okendo plazatik abiatuta, erraustegirainoko bidea egin dute hori gelditu dezatela eskatzeko. Aurretik, orain arteko borrokaren erakusle izan diren afixak erakutsi dituzte

### Txintxarri

Ezarrirako ordua baino minutu batzuk lehenago manifestariak plazan elkartzen joan ziren. Salmenta postu batean, erraustegiaren aurkako aldarria zuten kamisetak erosi zituzten batzuek; beste batzuek, aldiz, mobilizazioaren aurretik eta ondoren ere plazan ikusgai egon zen azken bi hamarkadetako borroka islatzen zuen erakusketa gainbegiratu zuten.

Plazatik irten zira eta Kale Nagusian barrena joan ziren erraustegira bidean. Erraustegitaren aurkako zenbait oihu egin zituzten partaideek, eta gehienek, azpiegituraren aurkako banderadun makilak eraman zituzten. Helmugan irakurri duten idatzian beste behin eskatu "erraustegi zikin, arriskutsu eta garesti" horren itxiera.

Aurretik eskerrak eman zizkieten bertaratutakoei, mobilizazioan parte hartzeagatik eta "batetik eta bestetik bultzaka" erraustegiaren "egia ezkutua" argitara ateratzen ari direlako.

Zubietan sortutako "hondakin arriskutsuak" nola banatzen diren azaldu zuten. Lixibatutako likidoak "behin eta berriro" agertu dira Arkaitzerrekan. "Hortxe dago erreka erreta, arrai eta gainerako bizidunak hilda". Horrez gain, aipatu zuten zabor zati bat, 5.500 tona, "modu ilegalean" Artaxoara (Nafarroa) bidali dituztela, Nafarroako Gobernuak debekatu arte, eta gerotzik, Bizkaira bidaltzen hasiak omen direla. Errausteko oso toxikoak Santovenia del Pisuegara doazela ere oroitarazi zuten, 330 kilometrorra, eta erretako tona guztien %23 zepa edo eskoria bihurtuta ateratzen dela labetik eta horiek "inguruko zementu fabriketan banatzen dituztela, gero, etxe, eraikin publiko edo gainerako azpiegiturretan sartuta uzteko. Beste "zabortegi" handia atmosfera dela nabarmendu zuten. Hori milaka tona CO2 eta bestelako negutegi gasen "igorle nagusia dela Gipuzkoan", erraustegiak, gainera, inguruan sakabanatzen dituela oso kutsakorrek

diren dioxinak, furanoak, metal astunak eta PIFAS edo kutsatzaile eternoak.

Hortaz, plataformako kideen esanetan, herritarrek bihurtu dituzte "Gipuzkoako hondakinen azken zabortegi: hemen bizi garen edo ondoko urteetan biziko diren pertsonak, animaliak, landareak eta natura osoa".

### Ikerketaren datuak

2019an Herbehereetako Toxic-Watch fundazioak ikerketa abiatu zuen erraustegiak inguruan zabaltzen duen kutsaduraren gainean. Bost urteren ondoren, asteen aurkeztu dituzte emaitzak. Mugimenduak aurreratu duenez, emaitzak "oso kezkatzeak" dira, lurzoruan, uretan, goroldiotan, landareetan eta oiloen arrautzetan nabari baitira dioxina, PCB, metal astun eta PIFAS kutsatzaileen igoerak. Atzo, hilaren 23an, osteguna, Hernanin, eta datorren astelehenean, hilaren 27an, astelehenean, Usurbilen ezagutaraziko dituzte emaitzak.

## Musikaldian arituko dira Udal Musika Eskolako lau ikasle

Musikaldia aurrera eramango dute bihar, hilak 25, Tolosan eta Ibaran. Bertan izango dira herriko zenbait musikari gazte

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako lau ikaslek Musikaldian parte hartuko dute larunbat honetan. Egitasmo hori Loatzo Musika Eskolak, Eduardo Mocoroa Musika Eskolak eta EHME Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak aurrera eramaten dute bi urtean behin. Ibaran eta Tolosan izango da aurtengo aldia.

Aipatu bi udalerrri horietako zortzi gunetan ariko dira parte hartuko duten ikasleak. Lasarte-Oriakoak Herrikide izenekoa (izen bereko ikastetxearen patioan) jardungo dira: Hugo Amil, akordeoien topaketan, 11:15ean; eta, Unai Granado, Inhar San Sebastian eta Pedro Garcia, abesbatzen topaketan, 12:45ean. Lau horien irakaslea Miren Etxenagusia da.

### Musika eskolen bilgune

Herri ugaritako musika eskoletako kideak 09:30-10:00ak artean iritsiko dira Musikaldira eta 10:00etan hasiko den aurkezpen ekitaldian parte hartuko dute, Zumardi Han-



Ekimena iragartzeko afixa. MUSIKALDI

dian. Makina bat ikuskizun aurrera eramango dituzte eta Kasinoan egingo duten oroi-garrien banaketarekin eta zuzendarien nahiz irakasleen topaketarekin amaituko.

Hauek dira aurtengo Musikaldiko eszenatokiak: Zumardi Handia, Topic musoea, Alondiga, Herrikide, Leidor antzokia, Ibarako plaza, Emerterio Arrese, Azkue eta Kasinoa.

Bazkalostean, Ibarako kaleak girotuko ditu Distopia elektrotzarangak.



TXINTXARRI

## Zezenketa elkarteko bazkaria

Palomo Linares elkarteak bere 57. urteurrena ospatu zuen hilaren 19an egoitzan egindako bazkariarekin. 50 bat lagun batu ziren, tartean, Agustín Valdivia alkatea. Menu goxoa dastatu zuten: piper gorri eta bentreska entsalada, urdaiazpiko iberikoa eta patea, Aldikako bakailaoa pil-pilean, Balerdi harategiko azpizuna piperrekin; edateko, berriz, ura, ardoa edo sagardoa zuten aukeran. Amaitzeko, postrea eta kafea izan zuten.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

## Kontraesanen olatuan

Gaurkoan kontraesanez beteriko lerroak dakartzat, kontraesanek askotan, hausnarketarako bidea irekitzen baitute eta eraikitakoak eraistera garamatzate, aldatzera, barruak nahastera, garbitzera eta ideiak argitzera edo ez.

Azken bi asteburuetan, goi mailako kirolean aritzen diren emakumezko taldeek jokatu dituzten txapelketen ingurumarian ibili naiz. Eskubaloiean, Bera Bera taldeak Malagaren aurka Ilunben jokaturiko finalaurrekoan eta futboleko Errealaren emakumezko lehen taldeak FCBren aurka Zaragozan jokaturiko finalean.

Talde batoren zein besteren egunerokoa gertutik jarraitzen ditut, bata zaletu moduan, bestea harrobiko langile moduan. Bi talde hauek astero- astero mugitzen duten pertsona kopurua urria izan ohi da. Egia da mugitzen duten ikusle mota oso desberdina izaten dela mutilen kirolarekin alderatuta. Familia giroa izaten da nagusi eta jende gazte asko hurbiltzen da norgehiagoketara.

Kopako partidu hauetan, jendetza bildu da eta ziur asko bildu den jendearen profila desberdinagoa, anitzagoa izan da astero Gaska edota Zubietara hurbiltzen direnekin alderatuz. Hala ere, faltan bota ditut Anoetara joan ohi diren realzale amorratu asko eta asko edo agian ez. Agian diot, askotan emakumezkoen norgehiagokek badutelako berezko kode bat. Desberdina. Eskubaloiean adibidez, aurkariarekiko dauden ohiturazko errespetu protokoloak jarriko nituzke eredu moduan. Kirolak izan beharko lukeenaren islada direla uste dut. Emakumezkoen futbolaren kasuan, zaletuarekiko gertutasuna azpimarratuko nuke. Tarteka badira ordea, jokoz kanpo uzten nautenak. Ziur aski kirol mundu tradizionalaren ikuspegiarekin erabat kutsatuta egongo naizelako. Adibidetzat jarriko dut Zaragozan emandakoa. Gure taldea partiduan sekulako jipioa jasotzen ari zen bitartean, zale asko eta asko olatua egiten hasi ziren. Posible al da jarrera hau izatea zelaiean gertatzen ari dena ikusita? Taldearenganako babesa modu horretan ere erakusten al dugu? Askoren ustez bai. Ongi pasatzea eta festa giroaz gozatzea beste gauza askoren gaineratik egongo direlako. Nire ustetan ez da egokia, nahiz eta berriz diot, oso kutsatua izanen naizen bizitzan zehar jasotako nolabaiteko kirol hezkuntza tradizionalarekin.

Honatz kontrapuntua, hortxe neure buruan burrunbaka dabilen ekaitza.

Agian nik neuk, neurekiko eraikitako egitura mentala bera hausteko abisu bat izan daiteke. Kasu honetan ere, deseraitzeko, desikasteko bidean beste hausnarketa bat. Agian, beste gizarteko hainbat alorretan bezalatsu, emakumezkoen kirolek ere ikaskuntza prozesu berriak, ohitura berriak irekiko dituzte guran. Prozesu indibidualetatik kolektiboetara igorri. Lehiak haratago, kirolek beste mezu batzuk zabaltzeko duten gaitasun gisara ulertuta, kirolek abiatuta gizarte berri baten eraikuntzarako oinarri bezala. Zerrenda horretan izena eman nuen lehenengoetariko izanda ere eta urte luzez lanketa eta hausnarketa horretan egonda ere, bide luzea daukat aurretik eta daukagula esatera ausartuko nintzateke. Urteetan zehar emakumezkoen kirol munduan lanean egonda ere, oraindik gauza asko ditut ikasteko, aldatzeko, moldatzeko. Izan ere, egunetik egunera garbiago daukat gizartea aldatuko bada aldaketa hori emakumezkoek gidatu beharko dutela eta bidelagun izan beharko dugulakoan nago kirolean ere; noski.

# Sasoetatik Zaragozara, indar txuri-urdina

Erreginaren Kopako finala jokatu du berriki Realak, eta lasarteoriatarrak ahalik eta indar handiena bidaltzeko festa bat aurrera eraman dute, bi egun lehenago. Marbell ile paindegia izan da horren sustatzaile eta herritar ugarik bat egin dute

## Txintxarri

Ikaragarritzko giroa topatu zuen, iragan ostegunean, hilak 16, TXINTXARRI-ko kazetariak Jaizkibel plazara iritsi zenean; Oholtza eta guzti, eta hortik, bertaratutako lasarteoriatarrak dantzatzera anima zitezten lan bikaina egin zuen Lorena San Emeteriok. Berarekin batera DJ bat ere aritu zen; bera arduratu zen giroari musika jarzteaz eta bien artean herritar asko erakarri zituzten dantzara. Gogoz astindu zituzten denek ala denek gorputzak. Realeko jokalariei animo eta indarra bidaltzea zen helburua, eta zinez lortu zuten. Festarekin bat egindakoen artean izan ziren Realeko jokalariei oihana Galdona, Javi Olaizola, Itsaso Garcia, Mikel Loinaz eta Alberto Gorri.

Halako batean, hiruzpalau buruhandi agertu ziren plazan, eta han eta hemen ibili ziren gaztetxoek bizkarrak astintzen. Marbell ilepaindegiko langileek eszenatokitik botatuko xaboi burbulak nork harrapatuko jolasean ere ibili ziren haur asko, eta, izan zen baita ere, antolatzaileek agertokitik botatuko oparixoren bat edo beste harrapatzea lortu zuen ere.



Marbell ile apaindegiko kideak oholtzatik burbulak botatzen. TXINTXARRI



Realaren eta Lasarte-Oriako ereserkiak jo zituzten danborradako kideak. TXINTXARRI

Realeko jokalarien eskertza mezu bat entzun ahal izan zuten plazan bildutakoek, eta festa-ekin aurrera egiteko, danborrak

hartu zuen oholtza. Realaren ereserkia eta Lasarte-Oriakoa jo zituzten. Giro aparta izan zen nagusi.



## XXXII. BATZAR NAGUSIAREN BILKURA

Ttakun Kultur Elkartearen XXXII. Batzar Nagusiaren bilkurara gonbidatu nahi zaituztegu:

**Eguna:** 2024ko ekainaren 12ean, asteazkena.

**Ordua:** 18:00etan lehen deialdia eta beharrezko bazkideen herena bilduko ez balitz, 18:30ean bigarren deialdia.

**Lekua:** Ttakunenea.

XXXII. Batzar Nagusiko gai zerrenda honakoa izango da:

- |                                 |                                   |
|---------------------------------|-----------------------------------|
| 1. Lehendakariaren agurra       | 2. 2023an egindakoaren balorazioa |
| 3. 2023ko diru-kontuen azalpena | 4. Zuzendaritzako kideak          |
| 5. 2023rako egitasmoak          | 6. 2024ko aurrekontua             |
| 8. Eskerak eta galderak         | 9. Otordutxoa                     |

Bazkideren batek gairen bat proposatu nahi badu, Ekainaren 8 izango da horretarako azken eguna. Proposamena idatziz aurkeztu beharko du ttakun@ttakun.eus helbidera bidaliz edo ttakunera ekarriaz.

Eskertuko dugu batzarrerako asistentzia konfirmatzea ttakun@ttakun.eus helbidera idatziaz edo bulegora deituz.

Ttakun Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordea

# Rekondo ez da sailkatu bigarren itzulirako

Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasea jokatzeko ari dira asteotan, udazkeneko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan ariko direnen zerrenda osatzeko. Oñatin aritu da lasarteoriatarra eta 273,5 puntu bilduta, lehiaketatik kanpo geratu da

## Txintxarri

Oñatiko Santa Ana antzokikoa izan da Gipuzkoa Bertsotan sailkapen faseko lehen itzuliko azkenekoa eta bertan parte hartu du Lierni Rekondo herritarrak, beste bost bertsolarirekin batera: Andoni Rekondo, Maddi Aiestaran, June Aiestaran, Aimar Sorazu eta Maider Garmendia. Bukaerako eta amaierako agurrez gain zortziko handian, zortziko txikian, ganbaran eta hamarreko handian jardun ziren. Jokoan, aipatu lehiaketa horretako bigarren itzulira sailkatzeko bi txartel eta udazkeneko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan aritzeko aukerak mantentzea.

Bi txartel horiek Andoni Rekondok eta Maddi Aiestaranek poltsikoratu zituzten 346 eta 326,5 puntu zakuratuta, hurrenez hurren. Bigarren itzulitik at geratu ziren June Aiestaran (319 puntu), Aimar Sorazu (293,5), Maide Garmendia (276,5) eta Lierni Rekondo (273,5). Aizpea Garmendia izan zen saio horretako gai jartzailea, eta, epaileak, berriz, hauek: Leire Beloki, Maite Sukia, Mikel Lersundi eta Unai Muniain.

Gipuzkoa Bertsotaneko bigarren itzuliko aurreneko lau saioak gaur (hilak 24) eta bihar



Lierni Rekondo (eskuinean), Oñatiko saioan abesten. BERTSOZALE ELKARTEA

jokatuko dituzte Antzuolan, Pasaian, Usurbilen eta Alegian. 24 bertsolari ariko dira horietan, eta, beste 24ak, datorren astean. Hauek ariko dira A multzoan: Haizea Arana, Jon Gurrutxaga, Aner Peritz *Euzkitze*, Libe Goenaga, Eneko Araiztegi, Eneritz Artetxe, Eli Pagola, Manex Astigarraga, Oihana Arana, Oier Etxeberria, Julen Zulaika, Beñat Iguaran, Peru Aiartza, Mikel Iturriotz, Iker Ormazabal, Emaitz Murua, Manex Mujika, Ane Beloki, Aratz Igartzabal, Eneko Beretxinaga, Izarne Zelaia, An-

doitz Urdapilleta, Endika Igarzabal, Iñigo Gorostazu eta Antton Fernandez.

B multzoan, berriz, hauek jardungo dira: Ane Zuazubiskar, Maider Arregi, Andoni Rekondo, Maialen Akizu, Maddi Aiestaran, Aitor Salegi, Aitor Tatiegi, Unai Izagirre, Gorka Maiz, June Aiestaran, Manu Goigana, Uxue Fernandez, Aitor Zubikarai, Beñat Jauregi, Odei Lopez, Andoni Mujika, German Urteaga, Oier Aizpurua, Urko Arregi, Antton Aizpurua, Urko Egaña, Julene Iturbe eta Uxue Alkorta.

## Reggae soinuak Jalgin

Hilaren 19an (igandea) Jalgi kafe antzokira bertaratu zirenek bestelako giroan gozatu zuten beraien edaria, bermuta izan ala beste zerbait. Izan ere, 11:00etatik 15:00etara bitartean Jinete Palido eta Jah Inity Sound DJek jarritako reggae musikaz bete baituzten taberna. Edaria eskuan, oinak edo gorputza mugitzera animatu ziren batzuk.



TXINTXARRI



Xumela, Montetxio eta Olagarro koruetako kideak, Zarautzen. XUMELA KORUA

## Montetxio eta Olagarro koruekin elkartu da Xumela, Zarautzen

Kantu jira egin dute kostaldeko herri horretan barrena eta bapo bazkaldu dute gero 90 bat pertsonak

### Txintxarri

Xumela koruak egun ederra igaro zuen hilaren 18an Zarautzen, bertako Montetxio eta Hondarribiako Olagarro taldeekin batera. 90 bat pertsona batu ziren eta kantu jiran aritu ziren goizean, bapo bazkaldu eta Lasarte-Oriara bueltan etorri aurretik. Gauzak horrela, euskaraz kantari aritzen diren taldeetako hiruk elkarrekin ehundutako sarea sendotu zuten. Egunean zehar makina pieza bat kantatu zituzten: hunkigarrienetako bat, Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean*, az-

ken urteetan hil diren koruetako kide ohien omenez.

Larunbat honetan (hilak 25) estreinatuko duten *Lasartoria 2074* ikuskizunaren emanaldian (Kukuka eskolak eta Semblante Andaluzek ondu dute) parte hartuko du Xumelak, hiru abesti kantatuta. Ekainaren 7an, ostiralarekin, berriz, Boise hiriko (Idaho, AEBak) euskal etxeko abesbatzari harrera egingo dio. 19:00etan emanaldia egingo du sagardotegi plazan eta ondoren Ttakuneneara joango dira guztiak elkarrekin, pin-txo-afaria egitera.



TXINTXARRI

## Itxaropena bilatzea, topaleku

Khea Ziater antzerki taldeak *La sed del minotauro* antzezlanaren emanaldi elebiduna egin du Manuel Lekuona Kultur Etxean. Zoriarekin eta zortzarekin borrokan dabilzan Beni eta Jani ere bertaratu dira. Taberna eszenario bakarra bada ere, proiektatutako irudien bidez edo atrezzoarekin osatutako eszenarioetan kontatzen dira pertsonaien istorioak.

# Euskararen aukerak eta erronkak, Borobilean

Erakunde eta eremu desberdinetan diharduten hiru elkarteko arduradun batu ditu ekimenak hizkuntzaren gaineko gogoeta partekatura: Kontseiluko Idurre Eskisabel, Galtzaundi Euskara Taldeko Igor Agirre eta Ttakun Kultur Elkarteko Haritz Salaberria

## Txintxarri

Euskararen osasuna aztertu, egindako bidea gainbegiratu eta bai indarguneak bai ahulguneak atzemateko ariketa egin zuten hilaren 22an Borobilean ekimenak antolatutako solasaldian. Horien gainean Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabelek, Galtzaundi Euskara Taldeko Igor Agirrek eta Ttakun Kultur Elkarteko Haritz Salaberriak esateko zituztenak entzuteko eta iritziak partekatze-ko 25 lagun batu ziren Oriarte Institutuan.

Ixiar Arteagak eta Joxe Mari Agirretzek dinamizatu zuten saioa. Arteagak partaideak aurkeztu zituen bakoitzaren hitzartzeren aurretik. Lehena, Eskisabel izan zen. Atzera egin eta egungo egoera testuinguruan kokatzen hasi zen, balioetsiz euskararen normalizazio eta biziberritze bidean egindako lana, gehienbat herri ekimenetik. Horri esker, duela 50-60 urte "pentsaezina" zen egoerara heldu bada ere, orduko zenbait hipotesi ez dira erabat bete, bereziki, belaunaldi berrien euskalduntzeak erabileran isla izango zuela. Arrazoiak eta bat hizkuntza minorizatu izatea denez, prestigiatzearekin edota erabilera sozialaren gidaritzaz-



Jakin-mina piztu zuen Borobilean ekimenak antolatutako azken saioak. TXINTXARRI

rekin zerikusia duten politikak behar direla nabarmendu zuen.

Diagnosiaren beste aldagaie-tako bat hamarkada hauetan mundua bera ere aldatu izana da. Globalizazioak eta pantailek hizkuntzekiko harremanak eraldatu dituzte, hegemonikoen indartzea eta minorizatuaren ahultzea ekarri. Izan ere, Kontseiluko arduradunak azaldu zenez, ingelesari aurre egin eta "beren kultur komunitateak indartzeko eta bermatzeko" Estatuek inbertsio handiak egin dituzte ikus-entzunezkoarekin eta digitaliza-

zioaren zerikusia duten tresnerian. Aldi berean, Frantziako eta Espainiako sare instituzionalak "joera eta jarrera supremazista" du hizkuntza minorizatuekiko, egungo oldarraldi judizialean isla duena. Horren bidez euskararen aldeko hizkuntza politikarako tresneria "deseraikitzen" ari da.

## Auzi politikoa

Horrek guztiak dakartzen erronkei aurre egiteko Eskisabelek beharrezkotzat jo zuen "ardatz politikoa jartzea hizkuntzaren

auzia", betiere, alderdikieriaz erabili gabe; baita "gizarte auzi garrantzitsu" bat dela adieraztea ere. Alegia, euskararen normalizazioan eta biziberritzean aurrera egin ezean, "gizarte kohe-sioan atzera" egingo dela.

Hizkuntza politiketan "jauzi bat" egiteko garaia dela uste du, eta horretarako "akordio berri bat" lortu behar dela. Kontseiluak uste du akordio horren muina ezagutzaren unibertsalizazioa dela, konpromiso zibiko gisa ulertua. Horretarako, ordea, "konplexuak" alde batera utzi behar dira. Herri aktibazioa presente izatea "oso garrantzitsutzat" jo zuen idazkari nagusiak, eta bide horretan, "oso interesgarria" dela saretzea, indar metaketa edo tokian tokiko bilguneak sortzea.

Egoeraren deskribapena ezkorra bada ere, globalizazioak ekarritako joerek "komunitatearen eta erroen beharra" eragin dutela adierazi zuen Eskisabelek, abagune baikor bat sortuz. "Hizkuntza minorizatuok mundua daukagu kontra, baina geure buruak eta hizkuntzak ditugu alde. Komunitatea eta bestelako bizimodu batzuk sortzeko motor eta bultzada moduan".

## Gazi-gozaok

Aktibazioari helduta, horretan diharduten bi talderen ahotsa eman zuten Agirrek eta Salaberriak. Tolosan euskararen kale erabilera hazi egin da -1985ean %29 izatetik egungo %53ra- eta horren sekretuak partekatze-ko gonbidatu zutela esan zion Agirretxek Agirrerri, erdi brometan. "Formula magikorik" ez badute ere, lau gako zehaztu zituen. Lehena, eskualdearen garrantzia. 28 udalerriz osatua, beti euskaraz bizi izan diren horietako

asko; eta Tolosarekin elkarre-raginean, "arau sozial" hori transmititzen ari dira; bigarrena, duela 20-30 urte herriko ikastetxe guztiek D eredu-a ezarri izana; hirugarrena, euskalgintzaren jarduna eta bestelako elkarteek ere euskararen eragiteko egin beharra bere gain hartu izana; eta azkenik, erakundearen eta Tolosako Udalaren inplikazioa. "Emaizta hori ez da azken urteotan egin den lanaren ondorioa, baizik eta 1985etik datorren olatu batean, akaso, punta", zehaztu zuen Agirrek.

Aurpegia Tolosa bada ere, ifrentzua eskualdean du. Izan ere, Tolosaldearen egoera ez da "hain desiragarria". Arnasgune diren herrien duela 40-50 urteko daturik ez badute ere, susmoa dute "askoz hobeak" zirela eta zenbait hizkuntza gatazka agertzen hasiak direla. "Tolosaren fenomeno eskualdean gertatzen ari da, hori neutralizatu behar da". Baikor amaitu nahi izan zuen, hala ere: "100-150 urtetan lehen aldiz gure eskualdeko herri guztietako kaleetan hizkuntza nagusia euskara da".

Herrira etorrira, erabilera "estankatu" dela badirudi ere, Salaberriak azpimarra egin zion erdietsitakoari; zenbait tokitatik etorritakoen artean komunitate propioa eratu baitzen, hizkuntza erdian kokatuta. "Euskara ez da hizkuntza indartsuena, baina badu erreferentzialtasuna". Ttakun ere erreferentzia da herriko euskalgintzan, eta barne erronke-z gain, bertan eduki beharreko lekua erabaki behar du. Hausnarketa partekatua izan ordutik aurrera, herriko elkar-teen arteko saretzearen aukera proposatuz. Zerbait egiteko beharrean adostasuna izan arren, nola egin da erabaki beharrekoa.

## Harkaitz Canorekin solastu dira irakurle txokoko kideak

'Ni ez naiz Laboa' komiki liburua izan dute hizpide hilabete honetako saioan; egileetako bat da herritarra

## Txintxarri

Mikel Laboa musikari donostiarraren biografia ilustratua, *Ni ez naiz Laboa*, izan du hizpide Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak hilabete honetako saioan. Unai Iturriaga eta Jo-

seba Larratxe *Josevisky*-rekin batera ondu du lan hori Harkaitz Cano herritarrak eta saiora bertaratu da egindakoari buruz hitz egitera.

Hilean behin elkartzen dira irakurle txokoko lagunak libu-

ruez eta elkarriketez taldean gozatzeko. Liburu jakin bat izaten dute abiapuntu saio bakoitzean baina lan bakoitzaz jarduteaz harago gai ugari buruz aritzeko leihoak zabaltzen dituzte.

Bi saiotik behin, normalean, lantzeko aukeratu duten lanaren egilea etortzen da beraiekin solastera. Atzo, adibidez, *Ni ez naiz Laboa* komiki liburua izan zuten hizpide egileetako batekin, Harkaitz Cano lasarteoriatarrekin.



Irakurle txokoko lagunak, Canorekin. IRAKURLE TXOKOAK

**Txintxarri**

Euskal Herriko eta Andaluziako kulturen arteko "harremanak sendotu, eta herri integratuago zein kohesionatuago dute, bihar, hilak 25, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako eta Semblante Andaluz elkarteak kideek *Lasartoria 2074*. Hemendik 50 urteko herria nolako izan daitekeen irudikatuta sortu dute eta denbora luzeko prestaketa lanen ostean, herritarrei hori erakusteko unea iritsi zaie parte hartzaileei. Informazio askorik aurreratu nahi gabe, obraren gainean hitz egiteko elkartu da TXINTXARRI aldizkariarekin aipatu bi elkarteetako kide Kontxu Iartza Etxenike, Dami Lopez Polaina, Jose Perez Acosta eta Puri Fadrique Fuentes.

**Nola sortu da elkarlan hau egiteko aukera?**

Informalki abiatutako bide batetik sortu da aukera. Duela lau urte, pandemia baino lehen, Semblante Andaluz Elkarteak lehendakariak proposamen bat egin zion Kukukari; Andaluziako dramagile baten obra itzuli, muntatu eta euskaraz antzezteko ideia luzatu zion. Kukukak begi onez ikusi zuen proposamena, eta inolako zalantzarik gabe baiezkota eman zion. Bi elkarten arteko zubiak sendotzea izan da helburu nagusia.

**Eta xede horrez gain, badu beste-rik?**

Arestian esan bezala, Semblante eta Kukukaren arteko zubiak sendotzea izan da elkarlan honen helburuetako bat, elkarlana bultzatu eta Lasarte-Oriak duen aniztasunean sakontzea, horrela, herri kohesionatuagoa izateko. Horrez gain, Andaluziako eta Euskal Herriko kulturen arteko lotura egitea, eta elkar ezagutza bultzatzea ere bai.

Eta, nola ez, Lasarte-Oriatik kanpo emanaldiak egitea ere hasieratik zehaztutako helburuetako bat izan da. Talde bakoitzak bere kontaktu sarea baliatuko du herritik kanpo *Lasartoria 2074* erakusteko; ahalgin hori egingo dugu. Alde batetik, Semblantek FARAE Andaluziar Etxeen Federazioarekin dituen harremanen bidez saiakera egingo du andaluziar etxeak dauden beste herrietara eramateko. Bestetik, ahalgin bera egingo du Kukukak euskal antzerki amateurraren arloan. Aurreratu dezakegu, adibidez,



Argazkian, obran parte hartuko duten kideetako batzuk. Ezker-eskuin: Kontxu Iartza, Dami Lopez, Jose Perez eta Puri Fadrique. TXINTXARRI

# "Bi elkarteon arteko zubiak sendotzea izan da helburuetako bat"

## KONTXU, DAMI, JOSE ETA PURI 'LASARTORIA 2074' OBRAKO PARTE HARTZAILEAK

Egindako lana erakusteko prest dira Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako eta Semblante Andaluz elkarteak. 'Lasartoria 2074' oholtzaratuko dute kultur etxean

Azpeitiako Antzerki Topaketan izena eman dugula.

**Idea pandemia garaian sortu zela aipatu duzue. Urte luzetako bidea egin du, beraz, antzerkiak.**

Bai. Arrazoi ezberdinak medio, hainbat unetan egonean egon da proiektua, baina martxa hartu zuenetik gaurdaino iritsi gara.

**Datu asko aurreratu gabe, zer ikusiko dute bertaratzen direnek. Zer aurrera dezakezue?**

Oso lan berezia topatuko dute, hitz egingo den modutik hasita, adibidez. Jende askok parte hartuko du eta gauza ezberdinak

ikusiko dituzte. Antzerki bat da, baina obraren barruan diziplina ezberdinak oholtzaratuko ditugu, hala nola, dantza, zuzeneko musika, koruak, eta abar. Lasarte-Oria anitza da, eta aniztasun horren erakusle izango den herri antzerki bat izango da.

50 urte barruko herritarrak dira istorioaren protagonistak, jatorri eta kultura ezberdinetakoak; batzuk Lasartorian jaioak, beste batzuk ez, baina denek hitz egingo dute hizkuntza bera: euskara.

Irrati zahar batek presentzia handia izango du; horrek erakarriko du arreta. Gailu horren bitartez entzundakoak eramango ditu pertsonaiak jolas batean sartzen. Rosita eta Romualdoren rolean arituko dira antzezleak, eta jolas horren bitartez euren istorioa kontatuko dute. Utrera-koak (Andaluzia) dira jatorriz, eta hango bere herrikideentzat beraiek dira *los vascos*; lasartoriarrentzat, berriz, *los andaluces*. Gauzak horrela, beren nortasunarekiko zalantzak beste azaldu nahian, gaztetan

## "50 URTE BARRUKO LASARTORIATARRAK IZANGO DIRA ISTORIOAREN PROTAGONISTAK"

## "ARRAZOI EZBERDINAK MEDIO, HAINBAT UNETAN EGONEAN EGON DA PROIEKTUA"

## "ERDI ARO BERRIAN BIZI DIREN HERRITARRAK AGERTUKO DIRA OHOLTZA GAINEAN"

euren artean izandako ligoteo kontuak kontatuko dizkiete ikus-entzuleei, dantzariak eta koruko abeslariak lagunduta. Zer gara gu? Nor gara gu? galderen aurrean, ondorio batera iritsiko dira: jatorria edozein dela, euskaldunak direla.

Azken finean, fusio handi bat izango da; dantza eta zuzeneko musika ere barne hartuko dituen antzerki bat.

**Nolako herria irudikatu duzue hemendik 50 urterakoa?**

Erdi Aro Berrian bizi diren herritarrak agertuko dira oholtza gainean. Nazioarteko inbertsio funts handiak izango dira munduaren jabe, eta estatuak eta gobernuak, berriz, folklorea geratu diren arrastoak baino ez dira. Herritar xumeen artean, etsipena izango da nagusi, lasartoriarrentzat ere bai.

Horrekin batera, azken 50 urte horietan emandako aldaketek ohartzeko, 2074. urtean klima aldaketak ere bere bidea egiten jarraitu duela ikusiko du ikus-entzuleak. Utrera duela 50 urte zuen klima bera izango du irudikatuko dugun Lasartoriak, eta, Utrera, berriz, Aaiunek (Mendebaldeko Sahara) duela mende erdi zuena izango du. Horrela irudikatu dugu.

**Euskarak garrantzia izango du obran.** Bai. Euskaraz izango da, baina gaztelaniako azpititulua izango ditu; pantaila handian irakurri ahal izango dira horiek. Horien bitartez, euskara mendera-



Irudiotan ageri dira *Lasartoria 2074* obrako hainbat antzezle, jantziak soinean, entseatzan. KUKUKA ANTZERKI ETA DANTZA ESKOLA

## "IKUSIKO DUGU ZER DATORREN, BAINA OBRA AHALIK ETA GEHIEN ERAKUTSI NAHIKO GENUKE"

tzen ez dutenek ere elkarrizketak ulertu eta jarraitu ahal izatea ahalbidetu nahi izan dugu. Gainera, obra honetan ikusiko da euskara izango dela 2074. urtean lasartoriatar guztiek amankomunean izango duten gauza bakarra.

### Nola sortu duzue antzerki obra?

*Lasartoria 2074* sortzeko XX. mende hasierako Andaluziako teatro burgesaren erreferente arrakastatsuak izan ziren Alvarez Quintero anaien *entremes* edo antzerki labur bat hartu dugu oinarri: *Azares del amor*. Lan hori hartu, eta euskararatu egin dugu, eta horri, Pablo Barrio herritarrak idatzitako beste testu batzuk gehituta osatu dugu taularatuko dugun lana. Andaluziar kostunbrismo burgesaren eta abangoardia garaikidearen nahasketatik sortu da.

### Zenbat parte hartzaile arituko dira oholztan?

Semblante Andaluz elkarteko hogeitau bat lagun arituko gara, eta Kukukatik, aldiz, bederatzi aktore eta hogeitau bat dantzari. Xumela koruak ere parte hartuko du, eta herriko musikariak ere izango dira, gitarra elektriko,



Afiza hau prestatu dute antolatzaileek antzerki obra iragartzeko. ANTOLATZAILAK

ko, trikiti, gitarra jotzaileak eta dultzaineroak.

### Nolako lana izan da horiek guztiak koordinatzearena?

Orain arte entsegu mistoak apenas egin ditugu, dantzariak bai, baina gainerakoan batere ez. Emanaldiaren aurreko aste honetan egin ditugu probak elkarrekin.

### Arestian aipatu duzue lana herri-tik kanpo oholztaratu nahiko zenuketela? Hartu duzuen lana

eta gero merezi du ahalik eta gehien erakusteak, ezta?

Bai, obra mugitzea izan da hasieratik helburuetako bat, bestela ez ginatkeen horrelako proiektuzarreen sartuko. Lehen esan bezala, momentuz Azpeitiko Antzerki Topaketan izena eman dugu. Ikusiko dugu aurrerantzean zer datorren, baina han eta hemen erakutsi nahiko genuke; badago asmo hori, bai.

## "Partaideak amateurak dira, baina obrak kalitatea du, eta uste dut hori balioan jarri behar dela"

Miren Gojenola Arriaga (Lekeitio, 1968) izan da, duela bi urtetik hona, *Lasartoria 2074* obraren zuzendaria, eta, hori hala izanik, bere ardura izan da jendaurrean oholztaratzear duten lana gidatzea. Ibilbide luzea izan dela kontatu dio TXINTXARRI-ri, eta horrek neke bezainbeste poz sorrarazi dizkiola



Gojenola da zuzendaria. M. GOJENOLA

aitortu du. Bere lanaren nondik-norakoen berri eman dio aldizkariari; gogotsu agertu da estreinaldiaren bezperan.

### Obraren zuzendari gisa, nolako izan da lan hori?

Duela bi urte hasi nintzen ni Kukukarekin lanean. Ibilbide luzea izaten ari da. Astean behin bakarrik elkartzen gara, eta horrek pixka bat zaildu du, adibidez, testua barneratzea. Partaide bakoitzak bere lana eta bestelako zereginak ere baditu, eta horrek luzatu egin du prozesua. Nekagarria bezain pozgarria izaten ari da; bietatik du. Hori hala izanda, gogo dugu oholztaratzekoa.

Aktore bakoitzak, gainera, antzezteko bere tresnak ditu eta horretara egokitu behar izan dugu lana. Ni Kukukarekin lanean hasi nintzenetik hutsetik hasi nintzen obraren gaineko lana egiten; lantaldea eta jendea ikusi, eta horren arabera egin dut nire eginbeharra.

Helburua beti izan da ahalik eta herritar gehienek parte hartzea; hasi aktoreetatik, dantzari eta musikarietara. Herri antzerki bat egiten duzunean, hori, askotariko diziplinetako jendeak parte hartzea oso aberasgarria da.

Polita izaten ari da obra hau zuzentzearen lana. Beti daude egun gorabeheratsuak, beti krisi momentu bat, baina horrek egon behar du, hortik indartsu ateratzeko. Azken asteotako lana ere garrantzitsua izan da, egunotan egin ditugulako diziplina ezberdinen arteko entseguak, elkarrekin, horien guztien lanak elkartu ditugu. Jende askoko entseguak izan dira.

### Herri antzerki bat da.

Parte hartzaileak profesionalak izan gabe aurrera eramandako lan bat da *Lasartoria 2074*. Profesionalek beste tresna batzuk dituzte eta egoera guztietara egokitzen dira, adibidez, edozein testura. Antzerki honetako testuak bere zailtasunak ditu, eta horregatik pixka bat moldatu egin behar izan dugu, parte hartzaileengana egokitu. Halere, horien guztien gogoarekin aurrera ateratzea lortu dugu. Esan bezala, partaideak, amateurak dira, baina obrak kalitatea du, eta uste dut hori balioan jarri behar dela; kalitatezko herri antzerki bat da. Mota horretako antzerki bat egiten duzunean, ez dago profesionalik, orokorrean; egon daiteke baten bat, edo adituren bat, baina, gainerakoak, herritarrak dira parte hartzen dutenak. **Eta eszenografiari dagokionean, zer nolako atrezzo-a eta jantziak ikusiko ditu bertaraten denak?** *Atrezzo*-ari dagokionean, ahalik eta sinpleena osatzen saiatu gara; argiek izango dute garrantzi handia. Gainerakoan, eszenatokia egongo dira elementu batzuk, testuinguruan kokatzeko balioko dutenak. Eta jantziei dagokionean, horiek bai, horiek garrantzia dute, Semblante eta Kukukaren arteko fusio horren erakusle izango direlako.



Zabaleta Auzolan elkarteko kideak eta udal ordezkariak, jaietako txosna atzean dutela. TXINTXARRI

# Teresa Sorgiñari harrera beroa egingo diote

Hilaren 28tik ekainaren 2ra ospatuko dituzte Zabaleta auzoko jaiak. Ohi bezala, adin tarte guztietako herritarrentzako programa oparo eta anitza prestatu du Zabaleta Auzolan elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin. 3.588 euro jasoko ditu

## Txintxarri

Hilabete honetako azken egunean jaitsiko da Teresa Sorgiña herrira, Zabaleta auzora zehazki, bertako jaietzat gozatzen. Zaindariari harrera beroa egiteko makina bat ekimen prestatu ditu Zabaleta Auzolan elkarteak Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, hilaren 28tik ekainaren 2ra arte, adin tarte guztietako herritarrentzat. Era-kundeak eragileari 3.588 euro emango dizkio festetan zehar izango diren gastuak finantzatzeko. "400 euro gehiago jasoko dituzte aurtun, materiala garraiatzeko furgoneta bat alokatu beharko dutelako", zehaztu du Jaietako zinegotzi Txus Alonsok. "Eskerrak eman behar dizkiogu auzo elkarteari, egiten duten lanagatik ez balitz ezinezkoa litzatekeelako jaiak aurrera eramatea".

Hori esanda, aurtengo programako zenbait jardura nabarmendu dituzte agerraldian parte hartu dutenek. Berrikuntza aipagarrietako bat haurren txupinazoa izango da, hilaren 28koa, aurtengo jaietzat hasiera emango diena. Dotore-dotore jantziko dira zenbait gaztetxo eta pregoia irakurriko dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Ekimen hori, gehientsuenak bezala, frontoiaren alboan dagoen

txosna gunean edo plazatxoan izango da.

Hurrek jaurretiko dute aurreneko txupinazoa eta beraiek izango dira lehen ospakizun egunetako protagonistak: jolas ugartan dibertitzeko aukera izango dute. Ostegunerako pintxo-potea eta The Noisemakers taldearen rock kontzertua programatu dituzte, asteburuko jardura erauntsiari begira motorrak berotzeko.

## Teresari ongietorria

Hilaren 31n jaitsiko da Teresa Sorgiña auzora, 19:00etan. Jaietako pregoia, Jalgune elkartearen dantza saioa eta Sorgin Dantza herrikoia egingo dituzte orduan. Ekimen andana etorriko da atzetik, igande arratsaldera arte. Proba misto nagusia, gauetako kontzertuak eta bertsolarien saioa izango dira horietako batzuk.

Larunbat gaueko barrikoterako eta igandeko herri bazkari-rako txartelak salgai daude Arima tabernan eta auzoko dendan: 25 euro nahiz 15 euro (12 urtera arteko gazteentzat) eta 22 euro zein 10 euro balio dituzte tiketek, hurrenez hurren. Ostiral gauean, bestalde, afari auzotarra egingo dute eta norberak eraman behar ditu janaria eta edaria.

## ZABALETAKO FESTAK - EGITARUA

### ASTEARTEA 28

**18:00etan**, haurren txupinazoa, pregoi eta guzti.  
**18:00etatik 20:00etara**, haurren txupinazoa: Talentu Bila eta kamisetak serigrafiaz.  
**20:00etan**, festetako dantzak, goxoraketak eta buruhandiak.  
*Frontoi alboko txosna gunea, 18:00etatik aurrera.*

### ASTEAZKENA 29

**18:00etan**, antzerki emanaldia Kukukaren eskutik.  
**18:30etik 20:00etara**, haurren txupinazoa: eskulanak, hankapaloak eta herri kirolak.  
**20:00etan**, festetako dantzak, goxoraketak eta buruhandiak.  
*Frontoi alboko txosna gunea, 18:00etatik aurrera.*

### OSTEGUNA 30

**18:00etatik 20:00etara**, haurren txupinazoa: apar festa.  
**19:00etatik 20:30era**, pintxo-potea txosna.  
**19:00etan**, The Noisemakers rock taldearen kontzertua.  
**20:30ean**, festetako dantzak, goxoraketak eta buruhandiak.  
*Frontoi alboko txosna gunea, 18:00etatik aurrera.*

### OSTIRALA 31

**19:00etan**, Teresa Sorgiñari ongietorria: jaietako pregoia, Jalgune elkartearen dantza emanaldia eta Sorgin Dantza herrikoia.  
**19:30ean**, festetako dantzak, goxoraketak eta buruhandiak.

**21:00etan**, afari auzotarra. Norberak eraman behar ditu janaria eta edaria.

**23:30ean**, Euskal Dantza Sorkuntza emanaldia Kukukaren eskutik.

**00:00etatik aurrera**, musika festa: Andoni Ollokiegi eta Auskalo taldearen kontzertuak.  
*Frontoi alboko txosna gunea, 18:00etatik aurrera.*

### LARUNBATA 1

**09:00etan**, diana.  
**11:00etan**, margoketa tailerra eta txokolate jana.

**11:00etan**, Xumela koruaren emanaldia auzoan barrena.

**12:30ean**, Zapotxin pailazoa.

**15:30ean**, Joxe Migel Aranzadiren omenezko XIV. Mus Txapelketa.

**16:00etan**, saskibalo partidak.

**17:00etan**, LOZET elkartearen erraldoi, buruhandi eta dultzaineroak.

**17:30etik 20:00etara**, pilota eta pala txapelketetako finalak.

**20:00etan**, goxoraketak eta buruhandiak.

**20:00etan**, Elektropottote elektrotxarangen kontzertua.

**21:00etan**, herri afaria.

Afalondoa, bertsolariak: Lierni Rekondo eta Iker Ormazabal.

**23:30ean**, Akelarre dantza.

**23:50ean**, zezensuzkoa, LOZET elkartearen eskutik.

**00:00etatik aurrera**, gaupasa: Txili Pipar, Gora Etorri eta DJ Fantasiaren kontzertuak.

*Auzoan barrena, 09:00etatik aurrera.*

### IGANDEA 2

**09:00etan**, diana.

**10:30etik 11:00etara**, patata tortilla txapelketa.

**11:00etan**, Euskal Dantza emanaldiak Kukukaren eskutik.

**12:00etan**, herri kirolak.

**12:00etan**, Oaintxe in deu! txarangen emanaldia.

**12:00etan**, LOZET elkartearen erraldoi eta buruhandiak.

**13:00etan**, proba misto nagusia.

**14:30ean**, herri bazkaria. Ostean, bingo aldrebesa eta txaranga.

**18:00etatik 20:00etara**, Malkogarriyak erromeriaren kontzertua.

**18:30ean**, toka txapelketa herrikoia.

**20:30ean**, azken traka eta Teresa Sorgiñari agurra.

*Auzoan barrena, 09:00etatik aurrera.*





# KOMERTZIO TXIKI HERRI HANDI

## LASARTE-ORIA



### BARNE-DISEINUA

**SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
  - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
  - HORMA-ARMAIRUAK
  - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943-361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)



### ELEKTRIZITATEA

**ELECTRICIDAD  
ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21  
600 85 75 86 [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)

# GRE MI OAK



### IGELTSERITZA

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



### KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

**ANORGA TXIKI S.L**  
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
  - Beira bikoitza
  - Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
  - Ispiluak
  - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943-37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)

32. URTEURRENA  
**ISU**

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak,  
barandak, toldoak, armairuak,  
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95  
[ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)

Kale Nagusia, 46 behea.  
LASARTE-ORIA

Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala  
USURBIL



ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?  
PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66



Ezkerrean, infantil A taldea garaipena eta Gipuzkoako txapelketa ospatzen. Eskuinean, infantil taldea. OSTADAR BOLEIBOLA

# Infantilak eta seniorrak, Gipuzkoako txapeldun

Ostadr Boleibola saileko infantil A taldeak Aldapeta Maria Berdeak ekipa garaitu du eta Gipuzkoako txapeldun da. Urdin-beltzak Euskadiko Kirol Jokoetan lehiatuko dira, hilaren 25ean. Senior taldeak, aldiz, matematikoki eskuratu du titulua

## Txintxarri

Ostadar Boleibol atala pozarren dago. Infantil mailako Ostadar A eta Senior mailako taldeak Gipuzkoako txapeldun titulua eskuratu dute.

Infantil mailako taldeak hilaren 18an jokatu zuen bere mailako finala, Donostiako Pio Baroja kiroldegian. Aldapeta Maria Berdeak taldea izan zuen aurrez aurre eta neurketa borrokatua izan zen.

Talde urdin-beltzak lehen seta 29-27 galdu zuen arren, ongi erantzun zuen hurrengo jokoe-

tan eta ederki jokatuz 1-3 (22-25, 17-25 eta 21-25) gailendu zen.

Ane Theus eta Nora Caspistegi entrenatzaileek garaipena eskuratzeko sufritu behar izan zutelaren onartu dute, baina harro daude taldeak denboraldian zehar egin duen lanarekin.

Senior mailako taldeak, aldiz, azken jardunaldian atsedean izan zuten.

Cristiana Hardman-en taldea aurkariaren emaitzen eta aurreko asteetako emaitzen eguneraketaren zain egon da. Guztia argituta matematikoki sailkape-

neko buru da eta Gipuzkoako txapeldun.

## Euskadiko Kirol Jokoak

Ostadar Boleibol ataleko bi ordezkari hilaren 25ean jasoko dute garaikurra, Donostiako Pio Baroja kiroldegian.

Alabaina infantil taldea ezin izango da bertan egon, Euskadiko Kirol Jokoak lehiatzen izango baita. Ostadarrek Gipuzkoako ordezkari modura egingo du borroka Bizkaiko eta Arabako taldeen aurka, Getxon (Bizkaia).

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONALA

**Ostadar SKT - Mariño CD**

Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunea.

#### GOINGOEN M., IGOERA PLAY-OFF

**Ostadar SKT - Aloña Mendi KE**

Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunea.

#### J. I. MAILA, IGOERA PLAY-OFF

**Urola KE B - Ostadar SKT B**

Larunbata. 12:00. Argixao, Zumarragan.

### ARETO FUTBOLA

#### GAZTEEN MAILA, FINALA

**Eguzki Bodegas Ayesa - Erain**

Larunbata. 11:45. Zubikoa kirol., Oñatin.

### BOLEIBOLA

#### EUSKADIKO KIROL JOKOAK

**Ostadar SKT A - Lakua Jatorkide A**

Larunbata. 10:30. Gebo, Bizkaian.

**CV Sestao 1 - Ostadar SKT A**

Larunbata. 11:45. Gebo, Bizkaian.

### PILOTA

**UDABERRI TX., I. 2. MAILA, 1/8**

**Intza KE 1 - LAPKE 3**

Ostirala. 19:00 (1. partida). Loidibarren pil.

### IGERIKETA

#### WORLD SERIES

**Buruntzaldea IKTKo kide Nahia Zudairek Berlingo Citi Para Swimming World Series proban izango da lehian.**

Osteguna 30-Ekainak 2. Berlin, Alemanian.

#### EUSKADIKO KIROL JOKOAK

**Buruntzaldea IKTKo Itxaso Iparragirre, Oier Jauregi, Ander Martiez eta Liher Albizu Euskadiko Kirol Jokoetan egingo dute igeri.**

Larunbata. Galdakao, Bizkaian.

### GINNASTIKA

#### EUSKADIKO TXAPELKETA

**LOKEko jubenil mailako gimnastek Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.**

Igandea. Durango, Bizkaian.

#### EUSKADIKO KIROL JOKOAK

**LOKEko Aiala Jimenez eta Laia Suberbiola gimnastek Euskadiko Kirol Jokoetan lehiatuko dira**

Larunbata. 09:45. Basauri, Bizkaian.

### ATLETISMOA

#### EUSKADIKO KIROL JOKOAK

**Herriko atletek Gipuzkoako selekzioarekin Euskadiko Kirol Jokoetan lehiatuko dira.**

Larunbata. 10:30. Basauri, Bizkaian.

### AUTOMOBILISMOA

#### SAN COSME IGOERA

**Aitor Manso gidariak Euskadiko Mendi igoeretan VIII. San Cosme igoera proban parte hartuko du.**

Larunbata. Zalla, Bizkaian.

### TXIRRINDULARITZA

#### VOLTA PORTUGAL

**Bñat Carbayeda herritarra Volta Portugal do Futuro proban ari da lehian Caja Rural alea taldearekin.**

Osteguna 23-Igandea 26. Portugalen.

### MENDI LASTERKETAK

#### ZEGAMA AIZKORRI

**Lasarte-Oriako hainbat korrikalari 23. Zegama Aizkorri mendiko maratoian lehiatuko dira.**

Igandea. 09:00. Zegaman.

### ERRUGBIA

#### EUSKAL LIGA, EM. FINALA

**Uni Bilbao Rugby - Gaztedi**

Larunbata. 15:15. Altamira, Ordizian.

#### 18 URTEZ AZPIKOA, FINALA

**Cumenor Elorrio Arrasate RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT**

Larunbata. 11:30. Altamira, Ordizian.

### ERAKUSKETA

**40. urteurrena dela eta, Beltzak RTK argazki erakusketara antolatuta du.**

Larunbata 25- Ekainak 2. asteburuetan 11:00etatik 13:00etara eta asteazken zehar, 18:00etatik 20:30era.



## Eguzki Bodegas Ayesa, Gipuzkoako txapelketaren bila

Lasarte-Oriako taldeak sasoi onean iristen den Erainen aurka jokatuko du Gazteen mailako finala

## Txintxarri

Eguzki Bodegas Ayesa taldeak pauso garrantzitsua eman zuen hilaren 18an. Pescaderias Alberto Ferreras Antxo 3-4 gaititu eta Gazteen mailako finalean da Francisco Javier Kixki Perezen taldea. Erainen aurka lehiatu beharko du ligako sari nagusia Oñatin.

Zelai zaila da Antxokoa, baina Eguzkiko kideek argi zuten hel-

burua, garaipena. Kantxara atera eta presioa eginez, gutxira 0-2 aurreratu zen Lasarte-Oriako taldea.

Aurkaria ere saiatu zen aurrera egiten baina Francisco Javier Kixki Perezen taldeak ongi eutsi zuen.

Hirugarren gola egiteko zorian egon zen Eguzki, baina kontraerasoan Antxok lortu zuen saria

eta markagailuan hurbildu zen. Eta atsedena baino lehen, lasarteoriarrek presio batean huts egin eta berdinketa eskuratu zuen aurkariak.

Atsedendian, Eguzki Bodegas Ayesa jokoan nagusi izan zela ohartarazi zien Kixki prestatzaileak jokalariei eta bigarren zatian ere modu berean jokatuzeko jarraibidea eman zien.

Bigarren zatiko erdialdean, kontra batean Antxok aurre hartu zuen eta Eguzkik presioa igo zuen. Ondorioz, minutu gutxira berdinketa lortu zuen.

Lasarte-Oriako taldeak neurketaren pisua hartu eta bost minutu faltan Kixkik atezain

jokalaria atera zuen. Antxo ere urduri zegoen eta seigarren falta egin zuen. Penalti bikoitza izan zuen orduan Eguzkik bere alde eta ez zuen hutsik egin, laugarren gola egin zuen.

Berdinketaren bila aurkariak ere atezain jokalaria atera zuen. Eguzkik ederki egin zuen lan defentsan, ordea, eta ez zion Antxori atera gerturatzen utzi. Eta neurketa amaitu baino lehen, lasarteoriarrek errenta handitzeko beste bi aukera izan zituzten.

## Final irekia

Gazteek egindako lanarekin pozarren eta harro dago Eguzkiko

prestatzaile Kixki eta Erainen aurkako finala irekia izango dela uste du.

"Taldeen konfiantza dut. Asteazken zehar ahulguneak landuko ditugu", adierazi du. Hala ere, aurkaria sasoi onean iristen dela ohartarazi du, "azken sei neurketak irabazi zituen ligan eta erraz gaititu du finalerdia".

Kadete taldea, aldiz, ezingo da Oñatiko finaletan egon. Arazo administratibo batzuegatik Eguzki Goxokis Goxua taldea ez zen Antiguokoren aurkako neurketara aurkeztu. Ondorioz, donostiarrak lehiatuko dira Lauburu Ibarren aurka kadete mailako lehian.



Rosa Santos, Jose Antonio Calvo, Itoiz Alustiza eta Martxeli Kanflanka, garaileen txapelekin. TXINTXARRI



Josu Lasa herritarra bigarren sailkatu zen bola jokoan. TXINTXARRI

# Bola eta toka jokalaririk onenak bildu dira herrian

Giro ederrean Gipuzkoako txapelketa lehiatu da hilaren 18an, Lasarte-Oriako Michelin guneko bolatokian. Rosa Santos eta Itoiz Alustiza zein Martxeli Kanflanka eta Jose Antonio Calvo izan dira garaileak txapelketa ezberdinetan

## Txintxarri

Michelingo kirol guneko bolatokian hitzordu garrantzitsua jokatu zen hilaren 18an, Gipuzkoako bolo eta toka txapelketa. Eremuko bolari eta toka jokalaririk onenak bildu ziren, horien artean, Josu eta Unai Lasa

herritarrak. Giro ederrean txapelak eskuratzeko lehiatu ziren.

Bola jokoan sailkapen txanda bat egin zuten parte hartzaile guztiek eta sei onenek (mutilen kasuan) eta lau onenek (emakumeen kasuan) aurrera egin zuten. Finalean Josu Lasa herri-

tarra eta Itoiz Alustiza zeraindarra eta Rosa Santos hernaniarra eta Nekane Etcheberria altzarra izan ziren buruz buru; bakoitzak zortzi tirada egin zituen. Alustizak, aurretik, Ibon Miner ereñotzuarrarekin berdinketa hautsi behar izan zuen.

Finalean Alustiza fin ibili zen eta 44 birlarekin gailendu zen; Lasa herritarrak 39 birla bota zituen. Emakumeen norgehiagokan Santosek eskuratu zuen Gipuzkoako titulua 41 birlarekin; Etcheberriak, aldiz, 35.

## Toka lehia

Tokari dagokionez, Martxeli Kanflanka ereñotzuarra nagusitu zen Nekane Etcheberriaren aurkako emakumeen finalean. Kanflankak txapa zortzi aldiz jo zuen; Etcheberriak, aldiz, sei kolpe. Atzetik sailkatu ziren, Naiara Peñagarikano (lau) eta Elena Aldaz (hiru).

Gizonezko mailan Jose Antonio Calvo urretxuarrak irabazi zion Antonio Amundaraini, txapari hamasei aldiz jota; Amun-

## Bolo txapelketa

- 1- Itoiz Alustiza  
Rosa Santos
- 2- Josu Lasa  
Nekane Etcheberria
- 3- Ibon Miner  
Elena Aldaz

## Toka txapelketa

- 1- Jose Antonio Calvo  
Martxeli Kanflanka
- 2- Antonio Amundarain  
Nekane Etcheberria
- 3- Iñaki Maiz  
Naiara Peñagarikano

darainek hamabost eman zizkion. Hirugarren izan zen Iñaki Maiz hamabi kolperek.

## Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak, Euskal Ligako finalean

18 urtez azpiko taldeak Getxo gainditu eta Cumenor Elorrio Arrasateren aurka jokatu du saria, Ordizian

## Txintxarri

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeko 18 urtez azpiko taldeak Euskal Ligako finalerdiak gainditu ditu eta finalean da.

Astin joaneko neurketa 24-19 irabazi ostean, etorrikoari aurre egin zioten Getxoren etxean, Fadura zelaian. Bizkaian jokatu-tako partida borrokatua izan zen. Bi taldek gogor egin zuten lan defentsan eta bi zigor ostikori esker, markagailuari itzulua eman eta garaipena eskuratu zuten beltzek, 22-26.

Lasarte-Oriako Beltzak harrobiko lau jokalaririk onenak bildu ziren bertan, jokoan edo aulkian: Lander



Beltzak RTko harrobiko jokalaririk onenak, Jose Mari Nuñez entrenatzailearekin. J. SANCHEZ

Zabala, Eneko Sanchez, Joanes Arroyo eta Efrén Real.

Hilaren 25ean, Euskadiko txapelak eskuratzeko Cumenor Elorrio/Arrasate taldearen aurka neurtu-

ko ditu indarrak Ordizian Altamira zelaian, 11:30tik aurrera.

## Urteurrena ospatzeko

Lasarte-Oriako Beltzak RT taldeak 40 urte betetzen ditu aurten eta hurrengo asteetan hainbat ekitaldi antolatuko ditu ospatzeko.

Lehena erakusketa bat izango da. Antolatzaileek azaldu dutenez, talde independente modura jokatu zutenetik gaur egunera taldearen garapena eta hazkundera ikusteko baliagarri izango dira irudiak.

Erakusketa hilaren 25etik ekainaren 2ra egongo da ikusgai Antonio Mercero gunean asteburuetan 11:00etatik 13:00etara eta astean zehar, 18:00etatik 20:30era.

Bigarrena ekainaren 1ean izango da. Goizean errugbi eskolako kideek errugbian familian egingo dute eta arratsaldean, aldiz, Izar Beltzak oroimenezkoa jokatu da.



CAJA RURAL-ALEA

## Carbayeda, Gipuzkoako bigarren

Hilaren 19an, Euskadun trofeoeko San Martin proba lehiatu zen Ataunen; Gipuzkoako txapelketako lehia ere izan zen eta Beñat Carbayeda herritarra podiumeko bigarren mailara igo zen. Denboraldi honetako lehen bakarkako podiuma du lasarteoriatarrek. Hainbat proba lehiatu ditu nazioartean, Espainian eta Euskadin, hala nola, Viana do Castelo (Portugal), Vianako klasika, Nabxituako Sari Nagusia, Clasica de la Chuleta edo Medina De Pomar eta Caja Rural-Alea taldearekin podiumera igo da hainbatetan. Aurreko egunean, esate baterako, Beasaingo Loinaz proban taldeko saria jaso zuen.



Nahia Garcia, Ameli Flores, Eider Redondo eta Mari Carmen Olaso, podiumetan. OSTADAR ATLETISMOA/G. REDONDO/M. C. OLASO

## Herriko atletek domina sorta eskuratu dute

Eskolarteko proba konbinatuen zein 3 kilometrotako Gipuzkoako txapelketa jokatu dituzte atletek hilaren 18an eta 19an. Herriko kirolariek bietan parte hartu eta lehen postuetan amaitu dute lehia, urrezko zein zilarrezko dominak eskuratuz

## Ostadarreko taldeak, igoerako kanporaketetan

Jubenil I. Mailako Ostadar B taldeak Texas Lasartearra CF 2-4 garaitu eta multzoko bigarren sailkatu ostean, Urola KEren aurka jokatu du igoera. Erregional Gorenak, aldiz, Aloña Mendi izango du aurkari. Joan-etorriko kanporaketak izango dira

### Txintxarri

Neurketa borrokatua jokatu zuten hilaren 19an Texas Lasartearra CF eta Ostadar B jubencil taldeek Michelin kirol gunean.

Lehen zatian Ostadar aurreratu zen penalti bidez markagailuan, baina Texas Lasartearrak ez zuen amore eman eta neurketari itzulita ematea lortu zuen 43. minutuan 1-2koa lortuz.

Atsedendiaren ostean, Ostadarrek berdinketa egin zuen. Bi taldeek aukerak sortu zituzten, baina talde urdin-beltzak lortu zuen beste bitan zuri-urdinen atea zulatzea eta 2-4 amaitu zen lehia.

Multzoko bigarren amaitu du Ostadarrek lehia buru izan den



Jubenilen lehia. TXINTXARRI

Antigua Luberri KEtik bi puntura; Texas Lasartearra, aldiz, hirugarren izan da. Talde urdin-beltzari liga eskuratzeko aukerak ihes egin badio ere, jubencil taldeak Gorengoen Mailara igotzeko au-

kera du eta Urola KEren aurka egin beharko du borroka joan-etorriko kanporaketan.

Ostadar Gorengoen Erregionala ere egoera berean da. Orioko 0-2 gaintitu zuen Jon Iruretaren taldeak, baina Vasconiak ere garaipena eskuratu zuen eta bigarren amaitu du fasea. Hala ere, igotzeko aukera du; Aloña Mendi izango du aurkari lehian.

Eta bada oraindik liga amaitzeko duen talde bat ere, Ostadarren Erregional Ohorezkoa. Aurreko jardunaldian Goierri Gorriren aurka 3-0 galdu ostean, sailkapen buru den Mariñoren aurka neurtuko ditu indarrak Leire Garciaeren taldeak.

### Txintxarri

Lasarte-Oriako atletek ez dute atsedetik. Hilaren 18an eta 19an hitzordu ezberdinak izan zituzten eta podiumera igo ziren, Zumarragan.

Infantil eta alebin mailako kirolariek proba konbinatueta Gipuzkoako txapelketari egin zioten aurre eta Ostadar SKTko hiru kide izan ziren podiumetan.

Alebin mailan 60 m. lasterketa, luzera jauzia eta pisu jaurtiketa probak gaintitu behar izan zituzten gaztetxoek. Horien artean, talde urdin-beltzeko Amelie Flores (1.328 puntu) eta Nahia Garcia (1.210 p.) lehen eta bigarren sailkatu ziren, hurrenez hurren, eta Oier Jauregi taldekidea (816 p.) laugarren izan zen.

Infantil mailan, aldiz, 80 m. eta 80 m. hesi lasterketak, luzera jauzia eta pisu jaurtiketa izan ziren probak. Ostadarreko Eider Redondok erregulartasun handia erakutsi zuen eta probetan lehen postuetan sailkatuz, urrezko domina jantzi zuen.

### Lehia eta markak

Egun bat lehenago, Donostiako miniestadioan, maila ezberdi-

netako 3 kilometroko lasterketako Gipuzkoako txapelketa lehiatu zen, baita proba libreak eta egokituak ere.

3.000 metroko lehian Mari Carmen Olaso herritarra izan zen. 13.36,77 marka eginez, master mailako zilarrezko domina jantzi zuen.

Proba libretan, aldiz, nabarmentzekoak dira Ostadar SKTko Iugatz Almagork 100 m. lasterketan (12,93) eta June Garcia (5,21 m.) luzera jauzian egindako markak.

### Hurrengo hitzorduak

Herriko atleta gazteek hurrengo asteburuan ere lehiaketa izango dute. Euskadiko Kirol Jokoak lehiatuko dira Basaurin (Bizkaia) hilaren 25ean eta Gipuzkoako selekzioak lau herritar deitu ditu: Ostadar SKTko Eider Redondo, Lua Ferrera eta Ikera Ibeas eta Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo.

Redondok luzera jauzi proba eta 4x80 m. erreleboan parte hartuko du; Ferrerak 3 km. martxa proban lehiatuko du; Ibeasek altuera proba egingo du eta Murgiondok 80 m. hesi lasterketa.

## Debuta eta Europa League-a

Jon Martin lasarteoriatarrak lehen mailan debuta egin zuen Betis-Real Sociedad partidan; 66. minutuan Tierney-ren ordeztatu zen atzelaria.

Hilaren 4an Las Palmasen aurkako neurketan aulkian egon zen Martin, Reale Arenan; oraingoan, Sevilara egin du bidaia eta Benito Villamarinen jokatu ditu lehen minutuak.

Neurketa garrantzitsua zen Realarentzat Europa League-rako txartela zegoelako jokoan. 0-2ko markagailuarekin atera arren, herritarrek etxekoan erasoak zapuztu, emaitza mantendu eta sailkapena eskuratzeko lan egin zuen.



Jon Martin, debuta egiten.

REAL SOCIEDAD

### Gainerako taldeak

Gainerako taldeek denboraldia amaitu dute eta gehienek aurkako emaitza izan zuten azken neurketan. Ostadarreko Ohorezko jubencilak bakarrik eskuratu zuen garaipena; Beti Gazte 1-0 garaitu zuen.

Erregional I. mailako Texas Lasartearrak 4-2 galdu zuen Hernani B-ren aurka. Maila bereko kopan Axular Lizeoa 2-3

gailendu zitzaion Ostadarri. Jubencil I. mailako Gipuzkoako kopan Kostkasek 1-3 irabazi zion Ostadarri. Ohorezko Kadete mailan, Oriokok 1-0 garaitu zuen Ostadar eta kadete I. mailako Gipuzkoako kopan Euskalduna eta Tolosa gailendu zitzaion Ostadar eta Texaseko ordezkari. Infantil txiki mailako txapelduen fasean ere Billabonak 2-3 irabazi zuen Ostadar.

# Herriko igerilariak, ederki San Marcial sarian

Buruntzaldea IKTKo igerilariak zein Bidasoa XXI taldeko Ainhoa eta Leire Martin Irungo San Marcial Sarian lehiatu dira. Herritarrek absolutu zein infantil mailako podiumetara igo dira. Kerman Miguel, aldiz, 'Igerilari osoa' proban aritu da igerian

## Txintxarri

San Marcial saria lehiatu zen hilaren 18an Irungo Azken Por-tu igerilekuan. Buruntzaldea IKTKo hamahiru ordezkari- ez gain, Bidasoa XXI taldeko Leire eta Ainhoa Martin ahizpak ere izan ziren lehian.

Ederki jardun ziren guztiak eta hamazapi marka pertsonal ondu zituzten. Euskal Herriko zein Espainiako Udako txapelketarako gutxieneko berriak ere izan ziren.

Gainera FINA puntuen arabera, Martin ahizpak zein igeriketa taldeko infantilak podiumera igo ziren. Leire eta Ainhoa absolutu mailako lehen eta sailkatuak izan ziren eta infantil mailan, aldiz, Buruntzaldea IKTKo Iñaki Garcia, Oihan Matute eta Mario Aman-tegi izan ziren lehen hirurak, hurrenez hurren.

## Igerilari osoa

Egun bat geroago, Ordiziako Majori kiroldegiko igerilekuan,



Martin ahizpak eta Buruntzaldea IKTKo kideak, sariek. BIDASOA XXI / BURUNTZALDEA IKT

Eskola mailako Gipuzkoako Txapelketa Igerilari osoa proba lehiatu zen. Neska eta mutilak bildu ziren bertan euren onena emateko eta horietako bat izan zen, Buruntzaldea IKTKo Kerman Miguel.

Estilo ezberdinetako lau probatan egin behar izan zuten igeri gaztetxoek: 50 m. tximeleta, 100 m. bizkar, 100 m. bular

eta 100 m. libre. Miguelek gogotsu egin zion aurre erronkari eta "lehia bikainak eskainiz", bere markak ondu zituen guztietan.

Taldeko kidea ezin izan zen podiumera igo, baina prestatzailerak gustura daude Kermanek egindako probekin, baita lehiketa osoan zehar izan zuen jar-rerarekin ere.

## Intza Kirol Elkarteko pilotariak txapelketetan aurrera egin dute

Ixaso Iparragirre eta infantil 2. mailako Intza 1 bikotea lehia ezberdinetako azken fasean borrokatuko dira

## Txintxarri

Pilota txapelketak aurrera doaz eta Intza Kirol Elkarteko kideek azken jardunaldiak jokatu dituzte; batzuk hurrengo faserako sailkatu dira.

Emakumezko infantil mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatzen ari den Ixaso Iparragirre dugu horietako bat. Hilaren 18an Abantzuko Mantxo gainditu zuen Michelin kirol guneko pilotalekuan. Herritarra nagusitasunez 2-0 (8-0 eta 8-0) gailendu zen. Iparragirrek ez du neurketarik galdu lehiaketan eta ekai-



Iparragirre, pilotari joka. TXINTXARRI

naren 6an jokatu du azken jardunaldia Oiarpeko Galardiren aurka. Lehia horretan erabakiko da multzoko lehen nor den. Hala ere, txapelketako finalerdietarako txartela du dagoeneko pilotari gazteak.

Infantil 2. mailako Intza 1 ere Udaberri Txapelketako final zortzirenetan dago. Markel Lopez eta Oier Jauregi ere nagusi izan dira neurketa guztietan eta euren multzoko lehen sailkatu bezala egingo dute aurrera. Hilaren 24an, 19:00etan, LAPKEren aurka jokatu dute partida finalerako bidean.

Txapelketa horretan borrokatu diren infantil 3. mailako zein 2. mailako Intza eta Intza 2 bikoek ezin izan dute aurrera egin; senior mailan Lau t'erdiko lehian aritu diren Haritza Diaz De Gereñuk eta Jon Pello Artetxek ere ez.

## Hamahiru jardunaldi eta 67 lasterketa, Hipodromoan

Lehen jardunaldia ekainaren 6an lehiatuko da eta irailaren 12an amaituko da udako denboraldia

## Txintxarri

Ekainaren 6tik irailaren 12ra zaldi lasterketen zaletuek Hipodromoko Udako denboraldiaz gozatzeko aukera izango dute.

Espainiako Jockey Klubak Donostiko kirol instalazioko sasoi horretako egitaraua onartu berri du. Bertan jardunaldi zein lasterketa kopurua zehaztu da. Guztira hamahiru jardunaldi izango dira eta 67 lasterketa. Hau da, egun bakoitzean bost lehia ikusi ahalko dira, uztailearen 14an eta abuztuaren 15ean izan ezik; horietan sei jokatu dute.

Ekainaren 6ko lehen saioa igande arratsaldeetako jardunaldi garrantzitsuen aurrekari izango da. Jardunaldia goizez lehiatuko da.

Gainerako lasterketa egunak uztailetik irailera arteko igandee-tan finkatu dira. Badaude salbuespen batzuk, abuztuaren 15a eta irailaren 12a osteguna dira eta abuztuaren 23a, ostirala. Azken egun horretan, gaine-



2023ko udako lasterketa. ISAAC FARRE RICO

ra, goizean egingo dute lasterka zaldiek.

Sariei dagokionez, abuztuaren 15eko Urrezko kopaz gain, Eusko Jaurlaritzari Sari Nagusia, Nazioarteko Kriteriuma, Donostiako Sari Nagusia eta Behorren Sari Nagusia izango dira proba garrantzitsuenak. Udako saioan guztira 808.400 euro banatuko dira.

## Hurrengo denboraldiko izen ematea irekiko du Ostadarrek

Ekainaren 1ean, denboraldi amaierako festarekin bat hasiko da epea eta hil horretako 16an amaituko da

## Txintxarri

Ostadar SKTKo atal ezberdinak 2024-25 denboraldia prestatzen hasi dira. Kirol egokitua eta inklusiboa, saskibaloia, boleibola, atletismo, errugbia edo futbola, horietako kirolen bat egin nahi duten haur eta gazteek ekainaren 1etik aurrera izena eman dezake- te kirol elkarteko webgunean ([www.ostadarskt.eus](http://www.ostadarskt.eus)). Inskribatzeko azken eguna ekainaren 16a da.

Talde urdin-beltzeko ardura-dunek jakitera eman dutenez, taldeak osatzen direnean entrenatzailea edo koordinatzailea jarriko da harremanetan interesdunarekin, zein taldetan jokatu duen jakinarazteko.

Horrez gain, Ostadarreko bule-goan (Geltoki kalea, 4), astelehe-

netik ostiralera, 17:00etatik 19:00eta- ra argituko dira zalantza guztiak.

## Azken festa

Inskripzioko lehen egunak bat egingo du Ostadarreko denboraldi amaierako festarekin. Talde urdin-beltzeko atal ezberdinak Oriarte Landaberri eraikineko patioan batuko dira 11:00etan.

Jolasek emango diote hasiera jaialdiari eta ostean, atal bakoitzak jokalariei jatorreari sariak emango dizkie. Ostadar SKTK, urtero moduan, Auzolan zein Herriko Kirolari Onenaren Saria ere banatuko ditu.

Eta emanaldiari amaiera emateko, 13:00ak aldera, Beltzak RTko kideek prestatutako hiru-garren denboraz gozatu dute.

## ZORION AGURRAK



**Maddi**  
Zorionak Maddi!  
Asko maite zaitugu!  
Oier, Unax, aita eta ama.



**Ainara**  
Zorionak sorgina!!!  
Muxu haundi bat  
familiaren partez.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

## Internet

· txintxarri.eus/  
zorionagurra.  
· Erabiltzailearekin sartu/  
Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.  
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostitiralean paperean.

## Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK  
ARTE JASOKO DITUGU

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 24	GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 25	DE MIGUEL
IGANDEA, 26	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 27	DE URJUE
ASTEARTEA, 28	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 29	LASA
OSTEGUNA, 30	GIL

## Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE URJUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer  
plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

## 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)  
webgunean eskuragarri.

## OHARRAK

## San Juan sokadantza entseguak

San Juan bezperako (ekainak 23, igandea) Sokadantza prestatzeko entsegu irekiak egingo ditu Erketz EDTk. Asteazkenean Landaberri ikastolako Garraioetxea eraikinean, 20:00etan bilduko dira ekitaldiko dantzak prestatzera. Parte hartu nahi duen edonor bertara daiteke entseatzera.

## Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostitirala, 24



Larunbata, 25




Igandea, 26



Astelena, 27



Asteartea, 28



Asteazkena, 29



Osteguna, 30



## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA



## ALOKATU

Apartamentu ederra alokatzen dugu Torredembarren (Tarragona), asteka, uztailean eta abuztuan. Etxe indianoa eta oso argitsua. Beheko solairuak lorategia du, eta hondartzatik 500 metrora dago. Etxebizitzak amerikar erako egongela, sukaldaria, bainugela eta senar-emazteentzako logela ditu. Guztira 50m2 lorategiarekin, irteera independentzarekin eta aparkaleku propioarekin. Prezioa 975

euro sei gau. Informazio gehiagorako 608319110 608043713 telefonoak. "Ongi Etorri".

## SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

## GARAJEA

## ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsalde deitu hona: 650 63 65 88.

## LANA

## ESKARIA

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia du, baita informea ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

46 urteko emakumea garbiketa lanak egiteko ekaintzen da. Esperientzia du, baita informea ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta informea du. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

## BESTELAKOAK

## SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

## ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)

WhatsApp: 646 82 44 66

[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4

Tel.: 943-37 14 48 (104)

WhatsApp: 688 68 35 10

[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administraria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdaleta, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 24

### LASARTE-ORIA Ekimena

Lasarte-Oriako boluntario talde batek txokolate jan solidarioa aurrera eramango du, haurren minbizia ikertzen ari direnei laguntzeko. Dohaintza euro batekoa izango da.

**Okendo plaza, 16:00etatik 21:00etara.**

### LASARTE-ORIA Festa

Aterpea merkatarien elkarteak Udaberriko Festa ospatuko du, komertzioetan eskaintza bereziak egin eta jarduera ugari aurrera eramanda:

**17:15etik 19:30era, Lilura liburu dendan, Txano y Óscar eta Sara-Li** liburuak idatzi dituztenekin solasaldia eta sinadura ekitaldia.

**17:30etik 18:30era, Dulce Tentacion gozo dendan,** gozokiekin apaingarriak egiten ikasteko tailerra.  
**Herrian barrena, 17:15ean hasita.**

### LASARTE-ORIA Ekitaldia

Europako Parlamenturako hauteskunde atarian, Eneko Andueza eta Idoia Mendia gonbidatuko ditu herrira Lasarte-Oriako PSE-EEK.

**Herriko etxea, 18:30ean.**

### LASARTE-ORIA Ekitaldia

Europako Parlamenturako hauteskunde atarian, Xabi Luke eta Nerea Kortajarena gonbidatuko ditu herrira Lasarte-Oriako EH Bilduk.  
**Okendo plaza, 19:00etan. Eguraldi txarra egiten badu, Antonio Mercero aretoan.**

### LASARTE-ORIA Musika

Danok Kide elkarteak XVIII. Musika Topaketak aurrera eramango ditu. Horren barruan, *Barroko ala ez Barroko?* emanaldia egingo du Oiasso Kamerata.  
**Brigitarren komentua, 19:30ean.**

## LARUNBATA 25

### LASARTE-ORIA Festa

Aterpea merkatarien elkarteak Udaberriko Festa ospatuko du, komertzioetan eskaintza bereziak



### LASARTE-ORIA Musika

Danok Kide elkarteak bi emanaldi antolatu ditu XVIII. Musika Topaketen barruan: Oiasso Kamerataren *Barroko ala ez Barroko?* eta musika elizkoian oinarritutako kontzertua, Easo Kapera Gregorianista eta Easo Eskolania taldeen eskutik.  
**Hilaren 24an eta 26an, Brigitarren komentuan eta San Pedro elizan, 19:30ean.**

egin eta ekimen ugari aurrera eramanda:

**11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, txu-txu tren ibiliko da herrian barrena.** Okendo plaza izango da geltokia.

**12:00etatik 13:30era, Jaizkibel plazan,** zunba eta jumping saioa aurrera eramango dute Saito gimnasioko kideak.

**12:00etatik 15:00etara, Ormazabal loradendan,** "garai bateko Goikokaleko alpagateriko erromeria". Paella eta sagardo dastaketak egingo dituzte 5 euroren truke.

**12:00etatik 15:00etara, Arkupe tabernan,** Udaberriko Bermuta.

**18:00etatik 19:00etara, Arkupe tabernan,** Sinergy taldearen kontzertua.

**19:30etik 20:30era, Arkupe tabernan,** Mandragora Negra taldearen kontzertua.

**19:00etatik 21:00etara, Buenetxea kafetegi-tabernan,** David Moreno upategiko ardoak dastatuko dituzte pintxo batzuekin batera. Bitartean, kontzertua emango du Radio Rebelde Covers taldeak.

**Herrian barrena, 11:00etatik aurrera.**

### LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Kukuka antzerki eta dantza eskolak eta Semblante Andaluz elkarteak

*Lasartoria 2074* ikuskizuna estreinatuko dute. Sarrera doakoa da baina aretora sartzeko beharrezkoa da gonbidapenak eskuratzea kultur etxeko leihatilan.  
**Kultur etxea, 19:00etan.**

## IGANDEA 26

### LASARTE-ORIA Musika

Danok Kide elkarteak XVIII. Musika Topaketak aurrera eramango ditu. Easo Eskolania eta Easo Kapera Gregorianista ariko dira.  
**San Pedro eliza, 19:30ean.**

## ASTEARTEA 28

### LASARTE-ORIA Festak

Zabaletako jaiak.

**18:00etan,** haurren txupinazoa.

**18:00etatik 20:00etara,** jolasak: Talentu Bila eta kamisetak serigrafiatu.

**20:00etan,** festetako dantzak, goxoraketak eta buruhandiak.  
**Auzoan, 18:00etatik aurrera.**

## ASTEAZKENA 29

### LASARTE-ORIA Festak

Zabaletako jaiak.

**18:00etan,** antzerki emanaldia Kukukaren eskutik.

## ANTZERKIA



### LABURPENA

#### 'Lasartoria 2074'

**Zuzendaria:** Miren Gojenola. **Sortzaileak:** Kukuka antzerki eta dantza eskola eta Semblante Andaluz elkarteak. **Herria:** Lasarte-Oria (2024). **Iraupena:** 80 minutu. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Kukuka eta Semblante Andaluzeko kideak.

## Gure herria, 50 urte barru

Jatorri eta kultura anitzetako herritarrak dira *Lasartoria 2074* ikuskizuneko protagonistak, mende erdi barruko bizilagunak. Ezaugarri bat dute komunean denek: euskaraz hitz egiten dute. Irrati zahar batean entzundakoak eramango ditu pertsonaiak jolas berezi batean sartzera: Rosita eta Romualdoren rolean ariko dira antzezleak eta euren historia kontakuko dute. Zer gara gu? Nor gara gu?-ren

gisako galderen aurrean, ondorio honetara iritsiko dira: jatorria edozein izanik ere, euskaldunak direla.

Erdi Aro Berrian bizi diren herritarrak igoko dira oholtza gainera. Nazioarteko inbertsio funts handiak dira munduaren jabe; estatu eta gobernuak, berriz, folklorea geratu diren arrastoak baino ez dira. Etsipena da nagusi jendartean, baita lasartoriarren artean ere.

**18:30etik 20:00etara,** eskulanak, hankapaloak eta herri kirolak.

**20:00etan,** festetako dantzak, goxoraketak eta buruhandiak.  
**Auzoan, 18:00etatik aurrera.**

## OSTEGUNA 30

### LASARTE-ORIA Festak

Zabaletako jaiak.

**18:00etatik 20:00etara,** haurrentzako jolas hau egingo dute: apar festa.

**19:00etatik 20:30era,** pintxo-potea.

**19:00etan,** The Noisemakers taldearen kontzertua.

**20:30etan,** festetako dantzak, goxoraketak eta buruhandiak.  
**Auzoan, 18:00etatik aurrera.**

## OSTIRALA 31

### LASARTE-ORIA Festak

Zabaletako jaiak.

**19:00etan,** Teresa Sorgiñari ongietorria: jaietako pregoia, Jalgune elkartearen dantza emanaldia eta Sorgin Dantza herrikoia auzotarren eskutik.

**19:30ean,** festetako dantzak, goxoraketak eta buruhandiak.

**21:00etan,** afari auzotarra. Norberak eraman behar ditu janaria eta edaria.

**23:30ean,** Euskal Dantza Sorkuntza emanaldia Kukuka eskolako ikasleen eskutik.

**00:00etan,** musika festa: Andoni Ollokiegi eta Auskalo taldea.  
**Auzoan, 19:00etatik aurrera.**

# BAZKIDETZA

Bazkide egiteko:



TTAKUN BAZKIDETZA  
**60€**  
URTEAN

TTAKUNENA BANAKAKOA  
**18€**  
HILABETEAN

TTAKUNENA BIKOTEKOA  
**25€**  
HILABETEAN



**EKAINAREN 30a baino lehen** bazkide egiten bazara **ERRIGORAKO** otar baten zozketan sartuko zara!

# GAZTE BAZKIDETZA

BAZKIDETZA GAZTEA (18-30J)  
**30€**  
URTEAN

TTAKUNENA GAZTE (18-30J)  
**10€**  
HILABETEAN

**EKAINAREN 10a baino lehen** bazkide egiten bazara **EHZ** jaialdirako **BI BONUREN** zozketan sartuko zara!!



**TTAKUN**  
KULTUR ELKARTEA



# GALDERA LEHIAKETA Lasarte-Oriako Toponimia

## 30 GALDERA

**MAIATZAREN 6-12**  
(10 galdera)



**MAIATZAREN 13-19**  
(10 galdera)



**MAIATZAREN 20-26**  
(10 galdera)



## 2 SARI

**2 PERTSONENTZAT  
LANDETXE BATEAN  
GAU BAT + GOSARIA**

**2 PERTSONENTZAT  
MENO BEREZIA  
AVENIDA IATETXEAN**



LASARTE-ORIA

txintxarri